



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2020KO IRAILAREN 8AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2020ko irailaren 8an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M^a Mar Ansorena, Santos Etxegia, Ricardo Arangoa, Olatz Dorai eta Xabier Azpiroz.

BERTARATU EZ DIRENAK: Julen Beunza.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.-Aurreko batzarreko akta onartzea.

Emalez bidalitako uztailaren 31n burutu ziren ohiko eta ez ohiko batzarren aktak onartzen dituzte bildutakoek aho batez.

2.-Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2020/38 alkate ebazpena uztailaren 31ekoa Fco. Javier Azpiroz Latasa lehen alkateordearen esku uztea alkate eskumenak 2020ko abuztuaren 3etik 2020ko abuztuaren 23ra biak barne.

- 2020/39 alkate ebazpena abuztuaren 1ekoa onartuz Jose Urchipia Galarzari Berueteko 11. Poligonoko 61. Lursaileko etxebizitzan teilatua eraberritzeko obra baimenarekin hasteko, urte bateko luzapena.

- 2020/40 alkate ebazpena abuztuaren 1ekoa Gorette Beunza Mariñelari irekiera baimena ematea Ihabengo 3. Poligonoko 14. Lursailean dagoen landaetxerako.

- 2020/41 alkate ebazpena abuztuaren 1ekoa onartuz Pedro Munarriz Goñi-ri lehenengo erabilera baimena Ihabengo 3. Poligonoko 7. Lursailean dagoen etxebizitzarentzat,

- 2020/42 alkate ebazpena abuztuaren 1ekoa onartuz Gregorio ITurralderi aurkeztutako aitoren arduratsua Jaunsaratsko 5. Poligonoko 11. lursailean dagoen biltegiaren lurran losak jartzeko aurrekontua 3700 eurokoa izanik.

- 2020/43 alkate ebazpena abuztuaren 1ekoa, onartuz Juan Munarriz Colomok aurkeztutako aitoren arduratsua Berueteko 12. Poligonoko 5. lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua berritzeko Aurrekontua 10124 eurokoa.

- 2020/44 alkate ebazpena abuztuaren 1ekoa onartzea Mikel Merino Zazonek aurkeztutako aitoren arduratsua Berueteko 11. Poligonoko 431. lursailean dagoen bordan barruto tabikeak botatzeko, aurrekontua 1841 euro izanik.

- 2020/45 alkate ebazpena abuztuaren 5ekoa Onartzea Ana Irigoieni, 2020 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultze 0205DKJ matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 30,02 eurokoa izanen delarik.

- 2020/46 alkate ebazpena abuztuaren 5ekoa Baimena emanaz Cristina De la Torreri, Aizarotzko gazteen izenean egindako eskaera ikusiz, gazteek elkartzeko, Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko, bera izanik talde horren arduraduna Marta Huarte Estebanekin batera.

2020/47 alkate ebazpena abuztuaren 5ekoa Baimena emanaz Marta Huarte Estebanek egindako eskaera Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko uztailaren 17 eta 18an. 10etatik arratsaldeko 20etara EITB-ek antolatutako tailerra emateko.

2020/48 alkate ebazpena abuztuaren 5ekoa Baimena emanaz Eneko Iurramendi Alemani, Kultur Etxeko gela txikia erabiltzeko kontzejuko bilerak egiteko.

2020/49 alkate ebazpena abuztuaren 6koa onartuz Alejandro Eugiri 2020 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea NA1586AX matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 17,53 eurokoa izanen delarik

2020/50 alkate ebazpena abuztuaren 6koa onartuz Beatriz Fuertesi 2020 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 3998BKL matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 30,02 eurokoa izanen delarik.

2020/51 alkate ebazpena abuztuaren 21ekoa onartuz Alberto Soraluçeri 2020 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea NA9221AW matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 30,02 eurokoa izanen delarik

2020/52 alkate ebazpena abuztuaren 24koa Onartzea Juan Azanza Mazo, 01347050D NAN zenbakia duenari aparkatzeko elbarriendako txartela.

2020/53 alkate ebazpena abuztuaren 25ekoa Baimena ematea Iker Fernandez Palaciori, Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko irailaren 4an 17etatik 19etara eta irailaren 5ean goizeko 10etatik arratsaldeko 18etara.

2020/54 alkate ebazpena abuztuaren 26koa Onartzea Limpiezas Daneko enpresak 2020ko uztailaren 31ean aurkeztutako aurrekontua Oihanzabal eskolako leihoak garbitzeko, hau 400 eurokoa izanik (BEZ kanpo).

2020/55 alkate ebazpena irailaren 2koa Jon Alsua Aristegui egindako obra baimena eskaera Beramendiko 1. Poligonoko 47. Lursailean biltegia egiteko aurrekontua 91.288,92 euro.

2020/56 alkate ebazpena irailaren 2koa Ainara Arangoa Mariezkurrenak aurkeztutako aitoren arduratsua onartuz Berueteko 11. Poligonoko 1. lursailean dagoen etxebizitzako balkoiko ate bat isteko, fatxada margotu eta sukaldeko azulejoak berritzeko aurrekontua 2500 eurokoa izanik-

2020/57 alkate ebazpena irailaren 2koa onartuz Felix Beunza Larumbek aurkeztutako aitoren arduratsua lhabengo 3. Poligonoko 3 eta 89. Lursailen artean dagoen pareta berritzeko aurrekontua 2840 euro.

2020/58 alkate ebazpena irailaren 2koa Miguel Goñi Sarasolak egindako obra baimena eskaera Gartzarongo 6. Poligonoko 59. Lursailean sarbidea zolatzeko aurrekontua 3840 eurokoa izanik

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.- Aizarotzko UOR 1 unitatearen birzatiketa proiektuaren aldaketa. Behin betiko onespina

Alkateak adierazten du hirigintzan gaia aztertu zela eta eskatu bezala jabe berrien sinadurarekin aurkeztu zuten behin betiko dokumentua baina falta de Ondasun Zerbitzuko baieztoko txostena tramitean dago, udalak eskatu du eta hortaz hurrengo batzarrerako utziko da puntua

4.- 2019ko kontuen behin betiko onespina.

Alkateak azaltzen du uztailaren 31eko ogasun batzordean hasierako onespina eman zitzaiela kontuei eta 1990/6 Tokiko Administrazio Legearen 273. Artikuluaren arabera jende aurreko epean egon ondoren kontuen txostena behin betikoz onartu ahal dela, kontutan hartuta ere ez direla alegazioak aurkeztu.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Behin betikoz onartu 2019ko kontuen espedienteak, behin betiko gastuak 988.077,34 eurokoak izanik, , sarrerak onartutakoak, 1.084.662,55 eurokoak eta urteko emaitza positiboan 96.585,21 eurokoa.

5.- 2020ko aurrekontua. Behin betiko onespena.

Alkateak aipatzen du data berean egindako ez ohiko batzarrean 2020 urteko aurrekontua aurkeztu zela eta hasiera batez onartu. Akordio hau Toki Administrazio Foru Legearen 271. Artikuluaren arabera NAO n argitaratua izan zen 15 eguneko epean jende aurrean egoteko. Abuztuaren 10eko 176. NAO n argitaratu zen eta ez dira alegazioak jarri hortaz behin betikoz onartu ahal da aurrekontua. Ogasun batzordeak azken aldaketak egin ditu.

Bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez **Behin betikoz onartzea 2020ko aurrekontua eta akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.**

6.- Igoako 9. Poligonoko 289. Lursailerako egiturazko udal planaren aldaketa. Behin betiko onespena.

Alkateak adierazten du beste batzarrerako utziko da gaia, sustatzaileak zuzenketa batzuk egin behar ditu behin behineko onespenerako, hirigintza batzordean hala adostu ondoren.

7.- 1006 BXL eta NA 9775 AH autoen erretreta.

Idazkariak azaltzen du Hondakinen Legeak arautzen duen bezala udalak, 2020ko otsailaren 27ko batzarrean prozedurari hasiera ematea adostu zuela eta jakinaraztea jabeei 2 hilabeteko epea zutela autoak kentzeko, epe hori pasatu eta ez baziren autoak jasotzen, udalak hondakin izendatzeko erabakia hartzeko aukera zuela, eta horren arabera kudeatzea zabortegira eramanez, ondoren berari gastua bideratzea posiblea izango zen.

Erabaki hau jakinarazi zitzaie bi jabeei, biek sinatu zuten jakinarazpena eta udalak egiaztatu du ez direla autoak jaso, hortaz, bildutakoek 2011/22 Hondakinen legearen arabera honako erabakia hartzen dute:

- **Hiri hondakin izendatzea 1006 BXL eta NA 9775 AH autoak eta zabortegira kudeatzeko prozedura jarraitzea.**
- **Jabeei erabaki hau jakinaraztea.**

8.- Udal eraikinak erabiltzeko ordenantza. Hasierako onespena.

Alkateak adierazten du ordenantzaren eredia bidali diela zinegotziei eta egokia ikusten duten galdetzen du edo aldaketak sartu behar diren.

Guztien testua irakurri ondoren ondorioztatzen dute, ongi zehaztu beharko litzatekeela erabilera ezberdina dela udalak antolatzen baditu ekimenak edo partikularren antolatzen badituzte (kasu honetan tasa ordaindu behar dutelako). Antolatzaileak onura gabeko elkarteak bada salbuetsia dago ere tasa ordaintzeaz.

Aipatzen da ere urte osoko iharduereen tasa merkeagoa izan beharko lukeela iharduera puntualekin alderatuz.

Tasen ordainketa giltza jaso baino lehen justifikatu beharko dutela ere erabiltzaileek adostu dute bildutakoek eta aste bateko epea finkatzea eskaerak tramitatzeko.

Isunen atalean egokia ikusten da kalteak sortzen badituzte erabiltzaileek isunaz gain kalteak ordaintzea.

Tramitean dagoenez ordenantza, eta ikasturte berrira begira eskaerak egiten ari direnez erabiltzaileek baimen hauek abenduaren 31era ematea adosten dute ere bildutakoek ordurako ordenantza indarrean egonen delako.

Bildutakoek ondoren zehazten den erabaki hartzen dute 1990/6 Toki Administrazio Foru Legearen 325. Artikuluaren arabera.

Hasiera batez onartzea Basaburuko udaleko eraikinak erabiltzeko ordenantza eta erabakia hau argitaratua izan dadin Nafarroko Aldizkari Ofizialean hilabeteko epean jende aurrean egin dadin ordenantza ereduak alegazioak jartzeko aukera irekiz.

9.- Aldaketa klimatikoaren inguruko alkateen ituna.

Alkateak adierazten du jada sinatu duela ituna honek agenda 21eko diru laguntzaren puntuak ematen zituelako.

10.- Mozioak.

Ez dago moziorik.

11.- Batzordeen informazioa.

Euskara eta Kultura Batzordea. Olatz Doraiek ematen du informazio.

Euskaraldia antolatzeko bilera Imotzekin egingen da irailaren 11ean.

Bestetik jada gizarte zerbitzuen bidez ez dute diru laguntzarik jasotzen kultura iharduerak egiteko, hortaz horren inguruan egindako bileran adostu zuten udal bakoitzak bere kultura ekimenak antolatzea eta gizarte zerbitzuen bidez prebentzioarekin antolatzen diren ekimenetarako ekarpenak egitea.

Gizarte eta Osasun Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Abuztuan sukaldaritza tailerra egin zen, 16 umeek parte hartu zuten eta bi talde egin. Emaizta positibotzat jo du batzordeak.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Abuztuaren 31ean azoka egin zen eta balorazioa egiteko bilera antolatu da Atetz eta Imotzekin irailaren 16an. Bestetik 1. Sektorea bultzatzeko bilera deia ere egin da irailaren 14rako.

Hezkuntza Batzordea. Esther Lakastak ematen du informazioa.

Ikasturte berrirako garraioa antolatu da 17 erabiltzaile izanen dira eta taxi eta autobus zerbitzua jarri dira martxan ibilbide eta ordutegiak antolatzeko garaian autobusarekin bakarrik ez zen nahiko.. Epek kanpo beste eskaera batzuk egin dira. 5 eurora igotzea gastua erabaki da 2015etik igo gabe zegoelako.

Eskolako patio berritu da baita ere, aurrekontuan horretarako partida bazegoen. Tekniko baten aholkularitza eskatu da, falta diren elementu batzuk arautegia betetzen duten jakiteko.

Ttikienan 7 hurrek egin dute matrikula eta urtarriletik aurrera beste bat ere hasiko da.

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Arraratsko kontzejuak egindako eskaera onartu da, uraren proiektua egiteko dirua aurreratzeko.

Ehiza barrutiaren berritzea hurrengo astean onartuko da NGan.

NUFK-eko lehendakariarekin bilera izan da Aizarotz kontzeju egiteko tramitazioaren inguruan NG-aren aurrean gaia mugitzeko eskatuz eta harek konpromezua hartu du galdetzeko nola dagoen espedientea.

12.-Informazio orokorra.

- Osasun programen dirulaguntzaren onspena, osotara 2.509 eurokoa, haur eta emakume osasun programetarako 1.169 eta 1.340 euro hurrenez hurren. Eta bestetik adinduen osasun programarako 1275 euroko dirulaguntza.
- Berdintasun iharduerak egiteko dirulaguntzaren onspena. 1.845 eurokoa.
- Adinduen ariketa fisikoen programaren azken zatiaren ordainketa agindua 2019-2020 ikasturtekoa, 277,52 euro.

13.-Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:40 ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.